

# Arnasguneak dira gure arnasa



KIMETZ ARANA BUTROE  
BARATZEAINA

**B**izkaiko Meatzaldekoak gara, gerra galdu zuen familia bateko ilobak. Abertzaleak ziren gure aitak eta galtzaile izateagatik gerraostean Espainian preso egon ziren biak. Bizkaian frontea erori zenean gerra amaitu arte Katalunian babestuta egon ziren amama eta bere ahizpak.

Gure aitita-amamek ez zekiten euskaraz eta, horregatik, gure familian beti egon da zerbait faltan genuen sentrazioa. Gure gurasoek frankismoaren amaieran ikasi zuten eta anaia eta biok euskaraz hazi eta hezi gara etxean. Lehengusu-ilobak euskaldunak gara guztiak.

Ikastolan euskara zekiten haur gutxiak izaten ginen, eta besteek baino gehiago genuen gelan euskara bultzatzearan zama. Etxean osaba-izeko frankismoko errefuxiatuak ziren, lehen-gusuak Iparraldean bizi ziren, eta Piriñioak, Orhi, Irati, oihana, ardiak eta artzainak ziren gure ipuinetako paisaiak, umetatik ikasi genuen gurea zela euskarari eusteko ardura.

Institutuan lagun berriekin, hainbat kirol eta kultur jardueratan hasi ginen.

Arnasguneak babesgune izan dira niretzat. Lasai sentitu naiz bertan, giharrak erlaxatu, eguneroko tentsio, etiketa eta hizkuntz estresik gabe hegaz ibili

Harremantzea ez zen erraza, eskolaz kanpoko bizia erdaraz zen eta gu, aldiz, hobe moldatzen ginen euskaraz. Zer zen jakin gabe, beti deseroso, parte hartzen nuen jardueretan isilik, nabarmendu gabe edo ezkutuan egoten nintzen askotan.

Euskaraz aritzeagatik azalpenetan ari-tu behar izan dugu gure gaztaro guztia. Askori zaila izan baitzaie ulertzea, etxeko hizkuntza denez, euskaraz aritzea naturalena dela guretzat eta ez ideologikoki esfortzuz egin dugun hautua.

Institutua amaituta Iruñera joan nintzen agronomia ikasketak egitera, niretzat unibertsitatea oso toki euskalduna zen. Iruñean konturatu nintzen aurrean nuen euskaldunen tribuko parte nintzela, baina ordura arte hortik urrun egon nintzela.

Hortik Arratiara, Larrabetzura, Segurara, Lesakara, Erratzura, Baigorriara, Donamartiri eta Donaixtira... Euskararen arnasguneak babesgune izan dira niretzat. Lasai sentitu naiz bertan, giharrak erlaxatu, gorputza askeago mugitu, eguneroko tentsio, etiketa eta hizkuntz estresik gabe hegaz ibili. Ezezagunei euskaraz zuzendu gatzazkie, lagunak egin ditugu, gure herrian ez diren kultur ekitaldi, kontzertu, saio eta abarrez gozatu dugu. Bizipen horiek guztiek nire nortasuna indartu dute, euskalduntasuna finkatu, nor naizen gogoratu eta osasun mentala orekatu.

Orain asko hitz egiten ari da arnasgunez, zentroaz eta periferiez. Nik ez dakit gure erdal hiri handietan euskara bultzatzeko egin beharrekoa zer den, baina badakit euskaraz natural biziko den lurraldearen iraupen eta zabalpena euskaldun guztientzat beharrezko dela. ●

**Barrua loratu, landare berezienekin.**

 **KIMUBAT**  
— GARDEN



[www.kimubat.eus](http://www.kimubat.eus) | Urrestilla bidea, Azpeitia

